



**Iñaki Konde**

IKASLAN GIPUZKOAko presidentea  
Presidente de IKASLAN GIPUZKOA

## AURKEZPENA

### Aldaketa garaiak

2006 urte honen amaieran eta 2007ko ateetan gaudela, aldaketa garaiak bizi ditugu Lanbide Heziketaren esparruan. Dagoeneko martxan edo oraindik etortzeke dauden garrantzia handiko eraldaketen lekuko gara, eta baita egileak ere.

Hezkuntzaren Lege berriak, ikastegi bateratuen berregituraketa, eskola-mapa berriro diseinatzea ekarriko du eta, horrekin batera, ikastetxeen banaketa, hori guztia guretzat kezka-garria izanik. Ikaslanetik, gai izan behar dugu ikastetxe bakoitzaren egoera ezberdina definitzeko eta horri aurre egiteko, gure heziketa-eskaintza hobe koordinatzeko, sustatzeko eta egituratzeko aukera ere dena aprobetxatuz.

Kalitatearen Agentzia HOBIDE kudeaketa eredu berriarekin eta ISOren proposamen sinplifikatuarekin sartzeak LH sistema osoan erreferentzia bakarrarekin eta era homogeneizatuan jardutea dakar; horrek erronka berria sortzen du, bertan ikaslea gure egitekoaren gunea dela ahaztu gabe. Ikasleria hori, fluxu demografikoak direla eta, bere kopurutik ez da mugitzen. Testuinguru honetan, paradoxikoa da gizar-teak hainbeste teknikari espezialista eskatzea, eta gu korapilo horri erantzun bat ematen saiatuko gara. Beste lurralde batzuetako gazteen etorrera aprobetxatu beharko genuke, aldi berean beren gizarteratzea erraztuz.

LH Euskadiren garapenerako alor estrategikoa da, agente politiko eta sozialek adierazten dutenez. Errealitate honi probetxua ateratzeko gai izan beharko genuke LHko Sailburuordetzarekin, erakundeekin eta sareekin batera lan eginez, Lanbide Heziketak gizartean duen presentzia handituz.

LANEKitik euskaraz egindako materialak sustatuz, HEZKUNTEK proiektuaren bidez Iparraldeko ikasle euskaldunei heziketa zikloak euskaraz egiteko aukera eskainiz eta erraztuz, Euskal Herriko garapen soziokulturalean parte hartzen dugu. Ikaslanetik nazioarteko harremanak ezartzen ditugu eta ikasleei aukera ematen diegu, Leonardo programaren bidez, beste lurraldeetako ikastetxe eta enpresetan proiektuak eta praktikak egiteko, honela laneko prestakuntza eleantza lortuz.

Modulu-katalogotik kanpo ekintzak eskaintzeko aukera berria, Lanbide Heziketa, bere prestakuntza-alditik langileen laneko bitzitza osora, benetan ulertuko duen pentsamolde berria garatzea, tradizioz gizonen espezialitateak zirenetan neskak sartzea bultzatzea, enpresekin elkarlanean aritzeko formulatan hobekuntzak... gure berehalako erronkak dira.

Sumatzen diren aldaketei aukerak balira bezala egin behar diegu aurre, eta ez arazoak bailiran. Euskal Lanbide Heziketa indartsua da, Administrazioaren laguntza irmoa dauka eta argi utzi du gai dela irudimenezko irtenbideak emateko eta elkarlanean aritzeko. Agur ditzagun, beraz, aldaketa garai hauek, ez kezka garaiak balira bezala, baizik eta berrikuntzarako gonbidapena bailiran.

## PRESENTACIÓN

### Tiempos de cambios

En este final del año 2006 y a las puertas de 2007, vivimos tiempos de cambios en el ámbito de la Formación Profesional. Somos testigos, y también actores, de transformaciones de gran calado, algunas ya en marcha, otras por venir.

La nueva Ley de Educación, la reestructuración de los centros integrados, llevará a rediseñar el mapa escolar y con ello la distribución de los centros educativos, lo que es un motivo de preocupación para todos nosotros. Desde Ikaslan debemos ser capaces de definir y afrontar la situación diferenciada de cada centro, aprovechando lo que también es una oportunidad para coordinar, potenciar y estructurar mejor nuestra oferta educativa.

La innovación que sugiere introducir la Agencia de la Calidad con el nuevo modelo de gestión HOBIDE y la propuesta de ISO simplificada significa trabajar con una única referencia y de forma homogeneizada con el sistema de F.P. en su conjunto, lo que supone un nuevo reto, en el que no debemos perder de vista que el alumno debe estar en el centro de nuestra labor. Un alumnado que, debido a los flujos demográficos, está estancado en su número. Habremos de desatar el nudo de esa paradoja que supone intentar dar respuesta en este contexto a la alta demanda de técnicos especialistas que reclama la sociedad. Deberíamos de aprovechar la llegada de jóvenes de otros países, ayudando al mismo tiempo a su integración.

La F.P. es un área estratégica para el desarrollo de Euskadi, como lo indican los agentes políticos y sociales. Deberíamos ser capaces de aprovechar esta realidad colaborando conjuntamente con la Viceconsejería de F.P, instituciones y redes para dar mayor presencia a la Formación Profesional en la sociedad.

Potenciando los materiales en euskera desde Laneki, ofreciendo y facilitando la posibilidad de cursar ciclos formativos en euskera a alumnos euskaldunes de Iparralde mediante el proyecto Hezkuntek participamos en el desarrollo sociocultural de Euskalherria. Desde Ikaslan establecemos relaciones internacionales y ofrecemos a nuestros alumnos, a través del programa Leonardo, la oportunidad de desarrollar proyectos y prácticas en centros y empresas de otros países, consiguiendo de esta manera una formación laboral plurilingüe.

La reciente posibilidad de ofertar acciones fuera del catálogo modular, el desarrollo de una nueva mentalidad que realmente extienda la Formación Profesional de su periodo preparatorio a toda la vida laboral de los trabajadores, el impulso a la incorporación de alumnas a especialidades tradicionalmente masculinas, las mejoras en las fórmulas de colaboración con las empresas... Son otros retos en nuestro horizonte inmediato.

Los cambios que se adivinan, debemos afrontarlos no como problemas sino como oportunidades. La Formación Profesional vasca es fuerte, cuenta con el apoyo decidido de la Administración y ha demostrado que es capaz de generar soluciones imaginativas y de operar en colaboración. Saludemos a estos tiempos de cambios no como una fase de zozobras sino como una invitación a la innovación.